

LEHEN URTEAK

Piarres Lafitte 1901ean sortu zen Luhuson. Iduri luke besteak ez bezelakoa izateko programatua zela. Aitatxi kaskoina zuen eta mugazaina, aitak ere ofizio bera zeukan. Euskal mundutik urrun izateko behar baino gehiago... nahiz ikusi ditugun mugazain eta mugazain- semeak izen bat egiten euskal literaturan, hala nola Elizanburu edo Zaldubi.

Ama etikarekin edo biriketatik eri izanez, sortu eta biharamunean, Senperera igorri zuten Piarres, Elixabet Irigoien andereari ematen ziotela amañotan. Hiru urtetan Uztaritzera joan zen aitona-amonengana, bost urtetan itzultzeko bere aitamen etxera, Urruñara izendatuak izanak zirelarik arte horretan.

Aita eta ama, biak hil zitzaizkion hilabete bat barne, zortzi urte zituelarik. Bizpahiru urte bizi izan

daiteke bere aitamekin. Piarres osoki umexurtx gelditu zeia, bakan ikusten dena. Ithorrotzen zeukan osaba batengana igorri zuten. Euskaraz ez zekien biarnes batekin ezkondua zen amaren anaia hori. Etxean ez zuen biarnesera baizik entzunen, eskolan frantsesa eta zekien euskara arroztuko zitzaion, biarnesera ikasten zuela.

Piarres Lafitte (1901-1983).



APEZGAI BEREZIA

Eta hona non apez egiteko gogo sortu zitzaion. Gauza arraroa hau ere, Martzial Dassance apezak ez zuen horrelakorik nahi: Piarres ez omen zen aski zintzoa, osagarri txarra zeukan.... baina Belokeko apaizgaitegira joatea lortu zuen halere.

Etxe handi hura ez zen berotua neguan. Piarres ahula osagarri aldetik. Canton irakaslearen bulegoko sutondoan egoten zen, besteak gela handian bilduak zirelarik ikasketa eta ariketa egiteko. Bere lanak bururatu eta eleberriak ematen zizkion irakurtzera. Sua eta eleberriak, beste ikasleek ez zituzten bi gozotasun.

Ez zen sainduenetarik. Ostiraletan, xuriketak eginik, paketaño batean ekartzen zizkieten ongi plegatu eta lisaturik. Atorra eta gaitzen erdian zeuden asteko egunkariak, kazeta bat irakurtzea gain-gainetik debekatua zeiarik.

1919an, gerla ondoko lehen hauteskundeak izan baitziren, *Le Courier* astekarian, dena gatz eta biper, kontatu zuen nola iragan zen Uztaritzen Garat gorriaren mitina. Frantsesez. Artikulua gustatu zitzaion zuzendariari, eta honek eskaturik segitu zuen artikuluak idazten... izenpetu gabe -apezgaiek kazetak irakurtzeko eskubiderik ez, eta are gutxiago kazetetan idaztekoa-

Salaberria, Laffitteren Luhusoko etxea.



PIARRES EUSKALDUNDU

Seminarioko jangela handian egiten ziren prediku edo sermoi-ariketak, bat frantsesez, bestea euskara edo biarneseraz. Bigarrena biarneseraz egiteko xedea zuen Piarresek. Gero apezpiku izan behar zuen Saint Pierre irakasleak bildu zuen euskaraz egitera eta horretarako euskara ikastera. Zortzi urtetan zekien euskara hura osoki arrotua zuen. Jan Piarre *Arbelbideren Erlisonea* eman zion irakurtzera lehen batean, euskara ikasteko. Ez zen oraino asmatua *Assimil* metodoa! Baina ez da nahia bezalako metodorik.

Ate horretarik sartu eta badakigu nola menperatu zuen gure mintzaira Piarresek. Joskerarekin izan zituen arazorik handienak, ez baitzen gaur bezalako gramatkarik garai haietan. Irakurtzen zituen *Eskualduna* astekaria, *Euskal Esnalea*, *RIEV*, *Euskal Erriaren Alde...* Hasi zen Eskualduna astekarian idazten, eta 1924an, Apeztegi apezak hartu zuen *Gure Herria* hilabetekari kulturalaren lankide.

3



Dassance apezarekin.

4 1914-1918ko gerlatik sartu apezgai elementia lasterrago apezteko hiru urtez eragin zizkieten lau urtez egiten ohi ziren ikasketak. Piarres haien artean sartu zen. Osagarria ez ona izanez, batere ez zuen soldadugorik egin. Hona non, apez ordenatua izateko prest zen 22 urtetan, zinez gazteegi, 24 urte behar zirelarik legez. Elizako kolegio zenbaitetara igortzen ahaiko zuten begirale, baina hain zuen gazte markatzen non, apezpikua beldur izan baitzen ez zuela larderiatik

aski izanen. Seminarioan gelditu zen liburutegiko gakoarekin, gela horretan sartzeaz beste lanik gabe. Hor ziren euskarazko liburu guztiak irakurri zituen bere euskara hobetuz zihoala. Mintza-praktika Arnegin egiten zuen oporretan, Ithorrotzeko erretorea harat izendatua izana eta bera ere harat joaten baitzen.

Ezkontza batean bere osaba eta izebarekin.



Ikasketak egin zituen Belokeko fraile etxea.



TOLOSAKO BAZTER AUZOALDEAN

Apeztu eta Okzitaniako Tolosara igorri zuten ikasketak segitzera unibertsitatean. Saint Pierrek abilki kontseilaturik filosofía utzi zuen filologiari lotzeko, euskararentzat baliagarriago izanzen zeiaiko. Baina apeza zen eta apez-lana ere egin nahi zuen. Tolosako apezpikuak igorri zuen, ala Eliza, ala administrazio aldetik larre gorria zen auzoalde batera. Hango sortze eta ezkontzen berririk ez zekiten, ez herriko etxeko, ez Elizako erregistroek.

Igandeetan karrikako hizkuntzan egiten ziren predikua elizan agertzen ziren bakarrei. Besteak, etxez etxe ibiliz ikusi zituen. Behin baino gehiagotan kontatu du nola ezkontza

eta bataio, sukaldeetan egin zituen, udaletxe gorriko idazkari bat lekuko Elizarentzat, bera lekuko udaletxekoarentzat -biak egin behar baitira Frantzian-. Ekumenismoa praktikan eman zuen beste nonahi aipatua izan aitzin! Apezpikuak ez zion ez baimenik, ez eta debekurik eman. Ofizialki ezer ez zekien.

Hurrek ez baitzuten hurbiltzekorik ere behar zen kaloriarik jaten, "Soupe populaire" deitu bazkaritxoak antolatu zituen haientzat. Sindikatua ere muntatu zuen, CFTC katolikoa, baina Piarres handik joan zelarik, taldearen burua CGT komunistera pasatu zen.



Seminario handiko apezgaiak: Lafitte azken lerroan dago, eskuinetik lehena

6

Tolosan gorriekin egin esperientzia hori baliatu zitzaion Uztaritzen, hor ere baitziren gorriak, hauek amerikanoak egia erran eta ez behartsuak. 1905ean, Estatuak beretu zituelarik elizak eta Elizaren ontasunak, Milafranga-ko eliza armadari idekirik, eskumikatua izana zen gizon bat hil

zorian zen; ikustera etorri zitzaion jaun erretorea fueratu zuen. Lafitteren bila joan ziren. Ez zuen bakarrik gizon hori urrikitzera ekarri, baina, gelan zegoen gorrieria guzia belaunikaraztea lortu zuen *Gure aita* eta *Agur Maria* denek erraten zituztela.



Tolosan zelarik ikasketak egiten.

Lafitte apez gaztea zutik.

UZTARITZEKO SEMINARIOAN

Baina apaizgaitegian zuen bere zinezko lana, irakasle-lana. Hor egonen da 1930etik 1986ra arte. Latina, grekera, alemaniera, literatura frantsesa eta euskara irakatsiko ditu. Baita, katixima edo dotrina ere. Gazte ainitz beregana zetorren konfesatzera.

Euskarari eman zizkion oren gehienak. Gero Landesetako apezpiku izan behar zuen Mathieu baitzen etxearen zuzendari, armairu bat eman zion laurogei bat liburu barnean: euskal "liburutegia"! Dirua eskatu zion liburutegi horri ikastetxe bati doakion neurria emateko. Mathieuk erran zion ez zeia dirua horretan xahutzeko ohiturarik. 2.000 libera eman zizkion halere bere sakelatik, lehen eta azken laguntza. Ez zen guti garai haietan.

Gure apez, irakasle sindikalista, brokantore lanetan hasi zen. Apez, mediku, abokatu, notario edo beste jauntxo bat hiltzen zena nonbait?

Berehala han zen eta haren liburutegia erostea proposatzen zuen 500 liberetan. Familiak ez baitzuen liburuen axoia izpirik gehienetan, berehala ematen zioten, afera ona egina zuelako segurtamenarekin.

Frantsesezko liburuak berehala saltzen zituen. Euskarazkoak, delako armairuan sartzen eta bat edo beste doblean baldin bazuen, beste norbaitekin trukatzek. Baionako liburu zahar saltzaileekin harremanetan zen, bai eta Bordele, Paris edo Tolosakoekin. Euskarazko liburuak bazituzten pundutik abisatzen zuten. Gertatu zaio 2.000 libera pagatzea hamabi orrialdeko liburu bat, oso arraroa, Fr. Schoeeli alemanaren liburu bat.

Uztaritzeko herria eta seminarioa.



8

Mathieuk eman 2.000 liberek umeak egin zituzten: milioiak balio zuen liburutegi bat muntatu zuen. Eta denak irakurtzen zituen. Bazuen jadanik zerbait irakurririk ere seminarioan pasatu azken urtean eta irakurgai horien emaitzak izan dira bere lehen liburuak.

Euskaldunen loretegia, 1931 n, euskal idazle bakoitzaren testu batekin. Herriaren inkulturaren lekuko lotsagarri, batere ez zen saldu.

Lhanderen hiztegia gero. Euskara-frantses hiztegia hasi zuen Lhande jesuitak 1926an, baina Parisera izendatu zuten. Tolosan ezagutua zuen Lafitteri eman zizkion bere fitxak

eta honek hartu zuen segida Aranart kalonjearekin 1938an bururatzeko lana. Nonbaiteko gizonaren apaltasuna, ez du bere izenik agertzen ere azalean, Lhandenaren ondoan, liburuaren %80 berak egina duelarik.

1941ean *Kantuz* atera zuen, 120 kanturen testuak, gerla ondoan berriz plazaratuko zuena kantu bakoitzaren musikarekin. Gero honen segida, *Errepikan*, musikarik gabe eta azkenik *Kantu kanta, kantore*, 370 kanturekin. Ez da hain gaizki ezkila arraildu batek bezain boz ederra zuen batentzat.



Gramatikari lotu zitzaion gero. Hamabi urtez lan egin ondoren, 500 orrialdeko "laburpen" bat plazaratu zuen 1944an. Nork erosiko zuen 2.000 orrialdeko liburu lodi bat atera balu? 300 bat saltzea pentsatu zuen eta 1.200 lagunek dirua eman zuten liburua inprimatu aitzin... Bordelen inprimatua izan zen, nehor ez zelakotz horrelako lan bat egiteko gai hurbilago.

Kazetaritza munduan du lanik handiena egin, jitea eta gustua baitzituen horretarako. Ikusi dugu nola idatzi zuen bere lehen artikulua bozkanpaina baten kariatara, frantsesez.

Euskaraz, bertsuak agertu zituen lehenik Euskalduna astekarian eta gero artikulua zerrenda luze bat ebanjelioaz. 1923an hasi zen Gure Herrian artikulua idazten: lehenak 1923an, lehen bi sariak irabazi baitzituen Euskaltzaleen Biltzarrak antolatu sariketan urte hartan. Orduko euskaltzaleen faroa zen aldizkari kultural honen idazkari nagusi izanzen zen, Mathieuk hartu zuelarik zuzendaritza 1928an.

Berak sortuko zituen Aintzina eta Herria-n da gehienik agertu kazetari, baina geroxago aipatuko ditugu bi aldizkari hauek.



Menditarrak taldearekin.

10

KEZKA SOZIALAK

Tolosan arazo sozialez kezkatuak ibilia eta sail bereari jarraiki zitzaion hemen. Baionako familia handietako sehiez edo neskamez arduratu zen apez gazte zelarik Baruch deitu andere batekin. Bordelen inprimatu *Le Carillon des Jeunes* hilabetekaria ematen zieten formatzeko. Zenbaki bakoitzean idazten zuen artikulua bat, Pierrette Labbé-k izenpetua -Pierrette, Piarres bere izena emazteari egokitua; Labbé, erran nahi baita apezaz-. Izigarriko arrakasta izan zuten artikulua horiek.

Uztaritzen berean ere lan egin zuen mundu sozialean. Parrokiako gaztetxean, "patronage" delakoan hasi zen, gazteak biltzen, bereziki gogoeta-bilkurak egiteko. Bazterrak minduko ziren laster. Parrokiako gela utzirik, beren bilgia sortu zuten. Eta hona non mintzaldi bat egiten duten igandearekin bezperak ari zirelarik elizan.



1963an Lafitteren adiskide zenbaitek apezpikuari galdetu ziotelarik seminarioko lanaren parte bat kendu ziezaion, denbora gehiago izan zezan euskara eta *Herria*-rentzat, apezpikutegira deitu zuen:

-Akitua zara jaun kalonjea. Hiriart Urruty apezak hartuko du kazetako zuzendaritza. Horrela pausatzen ahaiko zara.

-Jaun apezpikua, akitua naizela iduritzen bazaizu, lan hori uztea

eskatzen ahal didazu apezpiku gisa. Obedituko zaitut. Aldiz, zuzendari berriaren izendatzea ez da zure esku, astekaria ez baita apezpikutegiarena, baina elkarte batena, Elkarte horren buru bainaiz, proposatzen ahal diot Hiriart Urruty har dezan erredakzioaren buru bezala.

Vincent apezpikua izendatua izan zearik Gouyon ordaintzeko, hau ere norbaitek eskolatua zuen hona etorri aitzin, baizik eta Piarres, diozesako apez abertzale errebelatuekin zebilela.



St.Pierre apezpikuak hirugarrena eskuinetik. Lafitte bigarren lerroan eskuinetik bigarrena.

AINTZINA

Baina itzul gaitezen Uztaritzeko apez gaztera. Seminarioko gazte batzuekin Menditarrak elkartea sortu zuen, hegoaldeko Mendigoizaleak gogoan, euskal eskautak egiteko xedearekin. Geroxago Begiraleak, nesken adarrean, lagundu zituen Donibane Lohizunen Arramendi eta Jauregiberri andereak. Beti izan du feminismo-aire bat eta ordutik, emazteen bozkatzeko eskubidearen alde zen: 1945ean baizik ez die bozkatzeko eskubidea eman De Gaule-k Frantziako emazteei.

Gazte horietarik andana batekin sortu zuen Euskalherrizaleak mugimendua, mugimendu abertzale baten lehen urratsak iparraldean. Programa bat idatzi zien euskaraz eta frantsesez *Euskal Herriaren alde* liburutxoan.

Aintzina hilabetekaria sortu zuen 1934an gazte horien gogoak formatzeko, bai euskaldun, bai sozial aldetik. *Euskalduna* astekarian ez zuen bere burua libre sentitzen, berea zeukan kazeta batean, aldiz, bai.

Euskal gramatika.



Elebiduna zen, euskara gibelka hasia baitzen ordukotzat ikasle gazteetan. 2.000 aletan atera zuen. 32 zenbaki agertu ziren, sei hilabete pasatu zirelarik 31 eta 32garren zenbakien artean. Espainiako gerla zen, beste egitekorik izan zuen Lafittek eta orduko hemengo giroan ez zen gehiago posible *Aintzina*-ren ideiak zabaltzea. Hemengo zuri amorratuei ezin ulertua zitzairen eta ezin onetsia, hegoaldekoek bat egin zezaten gorriekin, Franco katolikoaren kontra.

Lanak izan zituen Lafittek, apez eta abertzale izanez, bere xiloa atzematen.

Hona zer irakur daitekeen lehenik *Aintzina* aldizkarian:

"Biibaon berean, zer nahi obra eraiki dute Eskualdun langileen onetan: langile etxe, langabeen aterbe, diruzaintze, eritegi, xahartegi ... hots! laguntza gaitzak... Gure zorionak gure hango anaieri. Bide ona erakusten daukute."



Abertzaleen xuritzeko beharra sentitu zuen halere zenbait hilabete berantago:

"Mendiz bestaldeko eskualdun suharrek ez dute segur 'Frente Popular' delakoarekin deus ikustekorik, Halere, badakite hartaz baliatzen: eta menturaz, ezkertiarren ganik eskubide gehiago izanen dute, eskuindiarren ganik bilduko zuten baino."

Azkenean mugak argi eman zituen. Hona zer irakur daitekeen *Aintzina* hilabetekarian:

"Politikaz den bezenbatean, gauden nor gure alde: antola ditela ahal duten bezela Espainiarekin; gu, Frantziarekin antolatuko gira (...) Ez ditake Eskualherriaren salbatzeko ere Espainia komunixten eskutan ezar. "

Frantziako hauteskundearen kariatara bere adiskideak gomiatu zituen Ybarnegaray bere etsai amorratuaren alde bozkatzera, gorrien kontra, nahiz gorriek ez zuten irabazteko xantza-izpirik hemen.



Uztaritzeko ikasle-taldeak.

GERLA ZIBILA

Buru-beharri sartu zen hegoaldeko haur iheslarien zerbitzuko. Hirurehun bat sartu ziren Hendaiaiko geltokian. Errusiara eraman nahi ziztuzten, "komunisten parabisura". Uhartan bildu ziren Ybarnegarayren jauregian, Dassance, Jauregiberry, Oxobi apezeta eta beste zenbait. Apezpikuaren baimena bazuten. Lafitteren gain eman zuten herriari dei bat idaztea haur horien alde.

Biharamunean apezpikutegira joan zen bere deia izenpetu zezan

Houbaut-ek. Hona non apezpikuak gibelera egiten duen, baizik eta "haur gorrien" alde mintzatzea, ikaragarriko hutsa litekeela Elizarentzat. Bellevue Donibane-Lohizuneko erretoreak eskolatua zuen eta hau, Donostian zegoen Harriet medikuak. Haurrak ez zirela ez gorriak ez urdinak ohartarazi zuen Lafittek. Apezpikua ez zen bere hartarik kantitu. Baina Elizak behar baititu ttanttoak tiratu denetarik, Lafitteren gain eman zuen haur horien ardura. Elizaren izenean.

15



Kantuz

16

Uhartan ere haizea itzulia zen. Bezperan baia emana eta diputatuak ez zuen deia izenpetu nahi. Arte horretan izana zuen Mola jeneralaren eskaintza: dirua behar zuen eta % 17ko interesa eskaintzen, bi hilabetetarik! Ez baita horrelako haur euskaldunik.

Geroxeago apezpikuak izenpetuko zuen dei bat iheslarien alde baina ez hemengo diputatuek.

Lafitte bera lotu zitzaion lanari. Haurrak aterbetu zituen Armendaritze, Jatsu, Arrosa eta Atarratzen, baita Donibaneko gazteluan ere, hautetsi bakar batzuen laguntzarekin; hala nola, Donibane Garaziko Haranburu eta Atarratzeko Jauregi, biak gorriak, eta Ilharreborde Armendaritzekoa, hau xuria, bainan Txilen egona eta abertzaleak han ezagutuak zituena. Bostehun haur egon ziren Behe Nafarroako hiri nagusiko gazteluan berean.



Garat seminarioko zuzendariak erreztasun guziak eman zizkion lan hori egiteko, kurtsoak beste irakasleek hartzen zituztela beren gain. Berriki arte zuzendari izana zuten Mathieu Hazpandarra Akizeko apezpizku izendatua izana zen eta euskaldunen aldeko elkarte internazionalaren sortzaileetarik zen. Manuel Intxaustik garai haietako 60 milioi libera eman zizkion gastuak pagatzeko.

Eihalarren zeiarik bere Menditarrak taldearekin, intxauspe bankeroa etorri zitzaion, ararteko lan bat egin zezan eskatuz: Molak "concierto economico"-ak begiratzea eskaintzen zuen euskaldunak harekin jartzen baziren. Donostiara joan zen. Gipuzkoarrak onartzekotan ziren. Bizkaitarrek erran zuten: "Mola horretan baldin bada, ez da gora! Berrikitan gutiagorentzat eza eman digu". Eza izan zen.

Garai haietako giroaren beste lekukotasun bat. Kanbon, bildu ziren alde batetik frankistak Oviedoko apezpikuarekin; bestetik antifrankistak, baita Lafitte eta Dassance Uztaritzeko auzapeza ere. Donostia gorrien eskutan zen eta Yagüe jenerala hurbiltzen ari. Delako apezpikuak erran zuen gorriak utzi behar zirela hiriaren erretzera. Eta monjak biolatzen bazituzten, hobe! Mundu guziak jakinen zuen nolakoak ziren. "Apezpikua baita hori ?" galdetu zuen Dassance-k, frankista zelarik.



Lafitte soldadu.

ALEMANEN DENBORAN


Espainiako komunista-multzoaren beldurra izan zuten haiek berek, Frantzia Alemaniaren kontra gerlan sartzearekin ez zuten dudarik izan. Errusia komunistarekin eskuz esku aritzeko. Lafitte ere sartu zen borroka horretan. Lehenik soldadu izan zen zenbait hilabetez.

Alemanek Frantzia garaitu zutelarik, Uztaritzeko seminariora itzuli zen. "Réseau Dominique-Base Espagne-DGER" deitu erresistentzia sarean sartu zen, *Lacroix* izengoitiarekin. ipar Afrikan zegoen Giraud jeneralari igortzen zizkion hemengo alemanen berriak: zer harma zeukaten, non zeuden eta beste. Jakes Mestelan lehenago *Aintzina*-ko militantea izana ere sare berean baitzen, behin 49 txirrindula ebatsi zizkien alemanei Ahurtiko baserri batetarik sareko beste kide batzuekin.

Gerla bururatu eta sasi gudari guziak nasaiki medelastatuak izan baitziren, Lafitte ez zen agedu "zer gerta ere"; komunistek boterea

hartuko zutelako beldur handia bazen eta haien kontra aritzeko prest izanen zela sarea erran zien bere adiskideei, hala beharrea. Komunisten beldurra berriz ere. Zaku berean sartzan zituen faxixtak eta komunistak.

Gerla denboran *Aintzina* aldizkariak izan zuen aro berri bat, politika-kazeta kultur hilabetekari bilakaturik, ez zuela artikulurik idatziko alemanak hemen zireno erran zien gazteei. Nahiz, 1943ra arte *Eskualduna* astekarian ikusten den bere sinadura, Pétain-enganik zerbait esperantza zueno iparraldearentzat, orduan aipu zen Frantziaren eskualdekatzearekin.



Erresistentziako dokumentu bat.

HERRIA

Erresistentzian ibilia izatea baliatuko zitaion gerla bururatzearekin. Xalbat Arotzarena Eskualduna astekariaren buruak alemanen hautua egin zuen, beti komunisten beldurrez. Hitler-en mintzaldi osoak agertu zituen euskaraz. "Arotzarena" esaten zioten kazetari. Alemanak joatearekin, ixildu

behar izan zuen. Saltzeak azkarki apaldu ziren 8.000 aletarik 1.200etara

Saint Pierre apezpikuaren etxean egin zen bilera beste astekari bat sortzeari buruz. Burua xut ibil zitekeen norbait baitezpadakoa zen, errotik euskalduna gainera. Xori arraroa! Lafitte baizik ez zuten ikusten. Ez zuten batere gustukoa, baina zer egin? Ez zen besterik eta deitu zuten.

19



Telesforo de Monzon eta Manu de la Sotak 20 liberako bedera eman zioten hilabete oroz. Zerbitzarik 1.000 libera. Beste nehork deus ez. Hainbestera non, kazetaren jabe gelditu baitzen. Ez zitzaion dolutu.

Lehenago aipatu bilkuratek zenbait hilabeteren buruan, bila etorri zitzaizkiotenen ikusi zuten kazeta martxan zeia, bainan ez haiek nahiko zuketen bidetik. Berriz elkarretaratu ziren eta erabaki beste zuzendari baten hartzea. Batek denak salatu zizkion Lafitteri. Honek denak gomitatu zituen bilkura batera, beren arranguren berri emateko. Uste izsan zuten Lafittek demisionatzea erabakia zuela. Ez zen horretarik ari! Bilkura aitzin Baionako Komertzio Ganberan pasatu zen. Ordu arte ez baitzen paper ofizial bihirik egina izan kazetarentzat, bere izenean deklaratu zuen eta kazetaren jabe bakar gelditu. Dirua ere ez ote zuen gehiena berak emana?

Bildu ziren gero beraz:

- Iduriz *Herria* ez da zuen gustukoa. Gauzak pikoan eman behar ditugu egun. Kazeta sortu delarik laguntza-hitz eman didazue baina dirurik ez duzue atera zuen sakelatik. Paperak nihaurek egin ditut eta bakarrik utzi

nauzue izenpetzeko, heldu baita legez, jabea, ni naizela. Ez zaituztet kanpo eman nahi, ez baitezaket bakarrik egin kazeta bat. Hona zein diren laguntza ekartzeko prest diren adiskideen izenak. Zuen laguntza ere gogotik hartuko dut. Eman zuen izenak beste lagunen ondotik, zuek ere lagundu nahi baldin banauzue.

Papera mahain gainean pausatu zuen.

Harrituta gelditu ziren. Andrein Hazparneko auzapeza joan zen. Besteek beren izena eman zuten halere. Salbu batek. Hau Idieder apezka zen. Joan-jinka ari zen karrikan, noiz etorriko zitzaizkion bila: hura hautatuta zuten Lafitteren kargua hartzeko.

Jauregiberry anderearekin.



ALGERIAKO GERLA

Algeriako gerla-denboran izan zen gorenean *Herria*, soldadu guziei igortzen baitzioten. 8.500 ale saltzen ziren. Aste oroz baitzen erdarazko artikulu bat, delako artikulu hori Algeriaz izan zen behin, eta ez arras frantsesen aldekoa, Salatari bat izan zen eta Baionako parakaidistek erabaki zuten kazetara etorriko zirela ale guziak bahitzekoa. Narbaitz kalonjea jakinean izanik, Lafitte abisatu zuen. Honek, gauez gau, kantu bat eman artikuluaren tokian.

Kazeta inprimategitik atera orduko, jeneral bat sartu zitzaion bulegoan ea

kazeta hor zuen. Ale bat eman zion. Hartu lehen orrialdea, hartu bigarrena, hirugarrena, laugarrena, so egin gainbehera, behetik gora, eskuinetik ezkertera, ezkerretik eskuinera, azken orrialdetik lehenera, itzuli gibelka, behar ez zen deus ez zen ageri. Gure jenerala umil-umila itzuli zen bere kasernara, zer gertatu zen behin ere ulertu gabe.

Pabeko prefeta aldatua izanik, *Herria*-k agertu zuen artikulu bat, ez baitezpada konplimenduz betea jaun horrentzat. Zenbait hilabete lehenago etorria zen Vincent apezpiku berriak deitu zuen Lafitte:

Hondet Belokeko abadearekin.



Apezgoaren 50 urteak ospatzen Theas Lurdako apezpikuarekin.



-Prefetak gutun bat igorri dit-
Irakurtu zion eta galdetu zer
pentsatzen zuen.

-Jaun apezpikua, ikusten dut
apezpikua berria izanagatik, bide
zaharretan gabiltzala. Prefetak bere
meneko norbait bezala zauka eta lan
tzarra zuri eginarazi nahi dizu.

Baina, Algeria frantsesaren
aldekoekin gaitzeko kanpaina egin
zuen Ybarnegarayk *Herria*-ren kontra.
Harpidedunak erdiratu zitzaizkion.

Eliza eta fedearen zerbitzuko
zeukan kazeta hori: "Apez gisa,
kazetaren medioz ez genuena
parrokian baino jende gehiago
hunkitzen?" erranen du berak.
Euskara eta abertzaletasunaren
gainetik ematen zuen bere fedea.

Euskarari buruz ere arrazoinamendu
bera egiten zuen:

"Idazlari kondu, ez genuena
irakurle gehiago liburuen medioz
baino? Euskalzale kondu, ez ote
zen euskararen zaintzeko eta
aberasteko lana hurri eta jarraiki
bat? Urte haste guziez, galtzerat ari
ziren hitz edo joskera molde

batzuen zerrenda bat finkatzen nuen
eta gero, astez aste, noiz artikulu
batean, noiz berrixketan, noiz irri
solasetan, alegia deus ez, sakatzen
nituen. Ondoko egunetan,
atseginekin ohartzen nintzen gure
lankide batek edo bertzeak beretzen
zituela."

Herria beti bizi da 53 urteren buruan
eta 4.000 ale saltzen ditu iparralde
ttiki honetan.



Sarako liburu- azokan

EUSKALTZAINA

Ba ote zen abertzalea? Horra eztabaida! Abertzalea zeia, bai. *Aintzina* hor zela lekuko

Eskualherrizaleak mugimenduekin. Hegoaldeko haurrak lagundu zituela, Hegoaldeko apezten adiskide mina zeia. Euskara harek bezala zerbitzatu duen bat ez ote da abertzalea?


Ezetz! *Aintzina*, erregionalista baizik ez zela. *Aintzina* kazetan agertu lerro batzuk ez direla nihondik ere abertzale batek idatziak izaten ahal. Euskara zerbitzatu duela, Elizaren onetan zeia ikusten zuelako eta besterik ez.

Bakoitzak epai dezala nahi duen bezala. Euskararen munduan, denek onartzen dute egin duen lana. Mintzaldi, hiztegi, gramatika, kazeta, eskuin eta ezker, frantsesez ala euskaraz agertu dituen artikuluak, kantu eta antzerki guziak bestalde: bazen hor berean behar baino gehiago euskaltzain bat egiteko. 1949an sartuko da euskaltzain oso Georges Lacombe bere adiskide minaren ordean.

Euskara batuaren borroka osoki bizi izan baitu, alde agertu zen. Osoki hegoaldekoa zen euskara batu bat onartuko zuen, garai haietan

dakizkizuen kalapitak sortu zituen "h" hura gabe. Iparraldean galdutzat zeukala euskara erran zuen Arantzazuko biltzar famatu hartan. Baina bere lanek erakusten dute ez zuela hurbiltzekorik ere uko egina! Gauza segurra, ez zuen uste oraiko mailara igoko zenik euskara, unibersitate-mailara arte, hain denbora laburrik barne.

Mitxelena eta Villasanterekin lan egin du gramatika-batzordean eta Lafittek erranak bazuen pisu eztabaidetan, gai horretan zinez jakintsua baitzen. Bazuen pisu,



halaber, iparraldeko euskaltzain berri bat hartu behar zenean: hala nola, Mirande bazterrarazi zuen, atea, arrazista eta nazia zelakotz. Lafitte, Mitxeiena eta Villasanteren batasunari zor diogu neurri handi batean euskara batua. Estrategia aldetik; Lafittek iparraldean hautatuak alde batetik, Mitxelena eta Villasanterenak Hegoaldean, bestetik. Horrela batuaren aldeko euskaltzainek gehiengoa bazuten erabakiak hartzeko orenean. Gehiengoa bat behar baitute erabaki hoberenek ere onartuak izateko.

Besteekin ere harreman onak zituen Lafittek, hala nola laguntza handia ekarri dion Lino Akesolori -Diccionario de autoridades obran-, baita Xanti Onaindiari ere. *Mila Euskal Olerki Eder* liburuan, erran daiteke, iparraldeko

olerkien hautua Lafittek egina dela. Zaitegirekin ere ongi konpontzen zen eta behin baino gehiagotan idatzi du *Euzko-Gogoan*.

Centre National de la Recherche Scientifique erakundeak langile bezala hartu zuen 1968an. 1982an Euskal Herriko Unibersitateak "doctor honoris causa" egin zuen.

Hil arte izan du bere tokia, berak sortua zuen astekari horretan. *Herria* da ainitzen ustez, egin dituen lan guzietan baliosena iparraldearentzat.

Piarres Lafitteren bizia bi hitzez laburtzeko erran dezakegu, osoki euskara eta Euskal Herriaren zerbitzuko izan dela, bainan oraino gehiago Eliza eta fedearen.

